



Erakunde autonomiaduna

Organismo Autónomo del

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

BERDINTASUN, JUSTIZIA
ETA GIZARTE POLITIKETAKO SAILA

DEPARTAMENTO DE IGUALDAD,
JUSTICIA Y POLÍTICAS SOCIALES

20 URTE

“Etxeko tratatu txarrak eta sexu-erasoak jasaten dituzten emakumeei laguntza hobe emateko erakundearen arteko I. Akordioa” egin zenetik:

IBILITAKO BIDEA

Izenburua: "20 URTE "Etxeko tratu txarrak eta sexu-erasoak jasaten dituzten emakumeei laguntza hobea emateko erakundeen arteko I. Akordioa" egin zenetik: IBILITAKO BIDEA"

Argitaratzailea: EMAKUNDE – Instituto Vasco de la Mujer.
Manuel Iradier, 36. 01005 Vitoria-Gasteiz.

Diseinu eta maquetazioa: GEN creativo.

Txosten hau EDE Fundazioak landu du proiektu honen esparruan: "EAE-KO EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIA MATXISTAREN BIKTIMEI LAGUNTZA HOBEA EMATEKO ERAKUNDEEN ARTEKO HIRUGARREN AKORDIOA"-ren diseinua eta lanketa.

AURKIBIDEA

SARRERA	4
1. I. Akordioari buruz	6
1.1. Aurrekariak.....	6
1.2. Ezaugarri eta eduki nagusiak.....	7
1.3. Bere indarraldian egindako lana.....	10
2. I. Akordiotik aukera	12
2.1. II. Akordioa.....	12
2.2. III. Akordiorantz.....	15
3. Ekarpen nabarmenak	17

Sarrera

Emakumeen aurkako indarkeria matxista giza eskubideen urraketa bat da, lehen mailako arazo soziala eta osasun publikokoa, eta botere-erlazio desorekatuen eta emakumeen aurkako diskriminazioaren adierazpide bat, zeinak, gainera, funtzio sozial bat betetzen duen, generoaren arabera desberdintasun estrukturalak betikotzeko.¹

Zaila da arazo horien larritasuna kuantifikatzea, gertatzen den indarkeria neurri handi batean ezkutuan geratzen baita, eta ez da erakunde ofizialen erregistroetan islatzen. "EAEko Emakumeen aurkako Indarkeriari buruzko datuak²", txostenetik ateratako datuen arabera, 2019an Ertzaintzak guztira 4.419 emakume erregistratu zituen beren bikotekideen, bikotekide ohien edo familia-inguruneko edo familia-inguruetik kanpoko beste gizon batzuen indarkeria jasan zutenak, eta kopuru hori % 4,12 handitu zen aurreko urtearen aldean. Datu hori prebalentziari buruzko makroinkestaren kalkuluetatik urrun badago ere, urte horretan estatu-mailan argitaratutako azken inkestaren arabera, 16 urte edo gehiagoko emakumeen % 21,5 inguruk sufritu dute noizbait indarkeria fisikoa eta % 13,7k sexu-indarkeria.

Botere publikoek emakumeen aurkako indarkeria matxista errotik erauzteko interbentzioaren premia nazioarteko hainbat dokumentutan jasota dago, besteak beste: "Nazio Batuen Hitzarmena, emakumearen aurkako diskriminazio-mota oro ezabatzeari buruzkoa" (1979); "Vienako Adierazpena, emakumearen aurkako indarkeria ezabatzeari buruzkoa" (1993); "Beijingo emakumeei buruzko laugarren konferentzia"-n (1995) egindako Adierazpena eta Ekintza Plataforma; "Europako Parlamentuaren 1997ko irailaren 16ko Ebazpena, emakumeen aurkako indarkeriaren aurrean zero tolerantziari buruzko Europako Kanpaina bati buruzkoa"; "Istanbulgo Hitzarmena", Europako Kontseiluak 2011n onartua eta abar.

Horiekin bat etorritik, azken urteotan, xedetzat hartu da emakumeen aurkako indarkeria matxistaren aurrean erantzuna hobetzea, hainbat lege eta beste arau batzuk garatuta, eta haiekin bultzatzen eta ezartzen joan dira neurriak, indarkeria-mota hori prebenitzeko eta desagerrarazteko, biktimak babesteko eta halako indarkeria erabiltzen dutenen aurrean gaitzespena, zigorra eta intolerantzia garatzeko. Ugariak dira nazioartean, Europan eta Estatuan eta, jakina, EAEn aipa litezkeen erreferentziatzako arauak.

Gainera, Eusko Jaurlaritzak, Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundearen bitartez (aurrerantzean Emakunde), emakumeen aurkako indarkeriaren arloko helburuak eta jarduerak planifikatu izan ditu hainbat Berdintasun Planen, programen eta akordioaren bidez. Horien artean, erakundeen arteko koordinazioaren eta lankidetzaren eremu zehatzean, ezinbestekoa da honako hauek aipatzea: "Etxeko tratu txarrak eta sexu-erasoak jasaten dituzten emakumeei laguntza hobe emateko erakundeen arteko I. Akordioa" (aurrerantzean I. Akordioa) 2001eko

¹ EUSKO JAURLARITZA. *Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Legea bigarren aldiz aldatzeko Lege Proiektua*. Vitoria-Gasteiz, 2020.

² EMAKUNDE. *Emakumeen aurkako indarkeriari buruzko datuak EAEn, 2019*. Vitoria-Gasteiz: Emakunde-Eusko Jaurlaritzak, 2020.

³ MINISTERIO DE IGUALDAD. DELEGACIÓN DEL GOBIERNO PARA LA VIOLENCIA DE GÉNERO. *Macroencuesta de Violencia contra la Mujer 2019*. Madrid: Centro de publicaciones del Ministerio Igualdad, 2020.

urriaren 18an sinatua, eta orain indarrean dagoen "*Etxeko tratu txarrak eta sexu-erasoak jasaten dituzten emakumeei laguntza hobe emateko erakundeen arteko II. Akordioa*" (aurrerantzean II. Akordioa) 2009an sinatua.

Zehazki, 2021eko urriaren 18an, 20 urte bete dira Emakundek bultzatu eta koordinatutako I. Akordioa sinatu zenetik. Hori dela eta, txosten hau egin da, EAEko genero-indarkeriari erakundeek ematen dioten erantzuna etengabe hobetzen laguntzen duela ikusarazteko eta baloratzeko.

Alde batetik, dokumentu honetan I. Akordioaren aurrekariak eta ezaugarri eta eduki nagusiak deskribatzen dira, lurralde-maila guztietan sinatutako ondorengo akordioen oinarriak ezarri dituztenak. Gainera, Akordioa indarrean egon zen bitartean egin ziren jarduera nagusien zerrenda ere jaso da, erantzuna hobetzeko erakundeen arteko koordinazioa bultzatzen lagundu zuten lehen urrats haiekin bat datozen jarduerenak.

Bestetik, I. Akordioari esker II. Akordioa sinatzea ahalbidetu zuten urrats batzuk ere jasotzen dira, eta haren mugarri eta ekarpen nagusiak nabarmentzen dira.

1. I. Akordioari buruz

1.1. Aurrekariak

Gobernu Kontseiluak 1999an onartutako "EAEko Emakumeentzako Ekintza Positiboko III. Planean" (aurrerantzean III. Plana), erakundeen arteko koordinazioa nahitaez hobetu beharreko eremutat jo zen. Politikak inplikatzean eta abian jartzean heterogeneotasuna antzeman zen. Planaren beraren arabera, egoera horrek zailtasunak sortzen zituen programak garatzeko lankidetzan, baita neurriak lortzeko lurralde-orekan ere. Horrekin bat etorritik, planak ezartzen zuenez, jarduera koordinatuak behar ziren emakumeen aurkako indarkeriaren biktimei laguntzeko ikerketa, prebentzioa, prestakuntza eta haiei zuzendutako arreta-zerbitzuen egokitzapenerako.

Zehazkiago, "Emakumeen aurkako Indarkeria" izeneko atalean, neurri bat sartu zen "emakumeen aurkako indarkeriari buruzko delituetan esku hartzen duten instantzien artean biktimei arreta hobea emateko ezarritako akordioak eguneratzeko" (9.3.4.1. ekintza). Neurri hori abian jartzeak eman zion estaldura I. Akordioa sinatzean eragin zuen lan-prozesuari.

Akordio hori bide luze baten emaitza izan zen, eta hainbat erakunde, sistema eta maila instituzional tartean sartu ziren, euskal administrazio publikoak berdintasun-politiketan egindako lanaren hamarkada batean baino gehiagotan oinarritu baitzen. Neurri batean, I. Akordioak osatu eta hobetu egin zituen 7 urte lehenago hiru lurralde historikoetan sinatu ziren sexu-erasoen biktimei laguntzeko koordinazio-akordioak, baita 2000ko azaroaren 25ean sinatutako Erakundeen arteko Protokoloan urtebete lehenago hartutako konpromisoak finkatu ere.

I. Akordioa ekimen aitzindaria izan zen EAE barruan eta kanpoan. Akordio hura sinatzean lehen aldiz ezarri ziren, **erakunde sinatzaileentzako konpromisoak ez ezik, jarduteko jarraibide homogeenok ere EAE osorako** eta sinaduran ordezkaturako interbentzio-eremu bakoitzerako: osasuna, gizarte-zerbitzuak, segurtasuna eta justizia.

Akordioa sinatzeak **emakumeen aurkako indarkeria matxistaren biktimeentzako arreta eta babesa garrantzi handiko leku batean kokatzen** lagundu zuen agenda instituzionalean baita gizarte-irajinarioran ere. III. Planaren diagnostikoaren arabera, "emakumeen giza eskubideei buruzko kontzientzia sortzen" ari zen une batean zegoen euskal gizartea, eta "...hedabideetan emakumeen aurkako indarkeria-egoerak ikusarazteak" lagundu zuen horretan.

Akordioa lantzearekin, baita sinatzearekin ere, non parte hartu zuten bederatzi erakundetako agintari gorenak, **mezu irmo bat helarazi zitzaion gizarte osoari: Emakumeen aurkako indarkeria eskubideen urraketa bat da, eta botere publikoek ahaleginak bateratuz esku hartu behar dute arazo horretan.** Argi geratu zen, gainera, arazo hori dimentsio anitzekoa dela, eta hainbat eragileren eta maila instituzional guztien arteko akordioak, konpromisoa eta koordinazioa eskatzen dituela.

1.2. Ezaugarri eta eduki nagusiak

I. Akordioaren helburua hauexek izan zen, indarkeria-mota hau jasaten duten emakumeei asistentzia integrala eta koordinatua bermatzea, arlo sanitarioan, polizialean, judizialean eta sozialean. Horretarako, kasu horietan esku hartzen duten profesionalak beren jardunean jarraitu beharreko jarraibideak eta irizpideak ezartzen ziren, eta inplikaturako erakundeen arteko lankidetzarako bide egonkorrak antolatzen ziren. Nabarmenezkoa da etxeko tratu txarren eta sexu-erasoen biktimei **arreta ematen diharduten EAEko erakunde guztien baterako lana** dizatearen balio erantsia.

Ondokoek sinatu zuten I. Akordioa:

- Lehendakariak
- Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiak
- Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiko Fiskaltzak
- Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako Aldundiek
- Eudel / Euskadiko Udalen Elkarteak
- Legelarien Euskal Kontseiluak
- Euskal Kontseilu Medikoak

I. Akordioa Lehendakariaren hitz batzuekin hasten da, eta argi dago dokumentua eta gaia lehenesten dituela agenda instituzionalean. Bere aurkezpenaren bidez, indarkeriari aurre egiteko esparru politikoa eta administratiboa mugatzen ditu. Esan bezala, akordioak hasi berri zen mende honetarako erronka garrantzitsuenetakoen artean kokatzen zuen emakumeen aurkako indarkeria desagerraraztea. **Gizarte osoa** eta, bereziki, botere publikoak **interpelatzen zituen**, arazo "*estruktural eta multidimentsional*" baten aurrean elkarrekin lan egiteko eta konpromisoa hartzeko.

Gainera, **agerian utzi zituen indarkeriaren ondorio indibidualak, baina baita sozialak ere**, adieraziz duintasunaren urraketa bat dela, emakumeek gizarte-bizitzan parte hartzea mugatzen duena eta erabateko herritartasuna gauzatzea baldintzatzen duena. Era berean, nabarmendu zuen "*herrien aurrerabiderako oztopo bat da, kostu pertsonal, sozial eta ekonomiko kalkulaezin eta atzeraezinekin*". Horrela, indarkeria-mota baten kausak ez ezik, ondorioak ere estrukturalak eta sozialak zirela azpimarratzen zen. Garai hartan, indarkeria hori eremu pribatuko arazotzat jotzen zuten oraindik ere, eremu horretan kudeatu beharreko inpaktuekin.

Nabarmenezkoa da, gainera, I. Akordioak, geroago Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 4/2005 Legeak (aurrerantzean LIV) egin zuen bezala, **diskriminazioaren, desberdintasunaren eta emakumeen aurkako indarkeriaren arteko lotura zuzena nabarmendu zuela**. Zioen azalpenean, Istanbulgo Hitzarmenean onartu baino hamar

urte lehenago, adierazi zen emakumeen aurkako indarkeria giza eskubideen urraketa "*larri eta onartezin bat*" dela, gizartearen barruan dagoen benetako desberdintasun-egoera estrukturalan errota. Mendekotasun ekonomikoa, familiaren barruan rola eta eginkizunak banatzea edo sexu-estereotipoak mantentzea aipatzen ziren erasoak ahalbidetzen dituzten kausatzat. Etxeko tratu txarrak eta sexu-indarkeria emakumeen aurkako bi indarkeria-modu zehatz direla adierazten zen, "*adin, gizarte-talde, kultura eta herrialde guztietan*" gertatzen direnak.

Azpinarratu zen beharrezkoa zela interbentzio koordinatua eta jarduteko prozedura homogeneoak ezartzea, biktimei babes osoa (sanataria, poliziala, judiziala eta soziala) bermatzeko, eta kasuak justiziaren eremura hobeto iristea zen xedeetako bat. Horrekin bat etorriz, **erakunde sinatzaileek erabaki zuten beren prozedurak edo jarduerak akordioan jasotako jarduketa-jarraibideetara egokitzea**, betiere beren eskumenen esparruan eta independentzia judiziala zorrotz errespetatuta. Itun horretan jarraibideak ematea zen asmoa, baina erakunde sinatzaileen balioa, egiteko moduak eta autonomia errespetatuta.

I. Akordioaren esparruan, **gobernantza-eredu bat** sortu eta finkatu zen **erakundeen arteko koordinaziorako**. Bi lan-gune osagarri eratu ziren, beren erantzukizunei eta eginkizunei dagokienez.

Erakunde sinatzaileek **Jarraipen Batzordea** izena eman zitzaiona sortzeko eta parte hartzeko konpromisoa hartu zuten, eta bere egitekoa da akordioan bildutako edukien betearazpenaren jarraipena eta ebaluazioa egitea. Batzordea, Emakundeko agintari gorenaren zuzendaritzapean, **erakunde sinatzaileetako agintarien** arteko elkargune bat zen, eta aldizkako harremanak errazten zituen, etengabeko koordinazioa bermatzen zuen jarraibide batekin, baita ematen ari ziren urratsen eta adostutako erabakien ebaluazioa ere.

Zehazki, honako hauek osatu zuten Batzordea une hartan: Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiko ordezkariak; Euskal Autonomia Erkidegoko Fiskaltza Nagusiak; osasungintzan, herritarren segurtasunean, justizian, gizarte-zerbitzuetan, gizarte-bazterkerian, enpleguan, etxebizitzan eta hezkuntzan eskumena duten Eusko Jaurlaritzako sailek; hiru aldundiek; Eudel-Euskadiko Udalen Elkarateak; Legelarien Euskal Kontseiluak eta Euskal Kontseilu Medikoak.

Beharrezko laguntza teknikoa emateko **Erakunde arteko Talde Tekniko** bat (aurrerantzean ETT) ere sortu zen, erakunde sinatzaileak ordezkatzeko zitezten teknikariek osatua. Talde hori eta bertan kide diren teknikariak, indarkeriari aurre egiten dioten emakumeei ematen zaien erantzuna hobetzeko beren konpromisoa eta borondate irmoa, faktore erabakigarriak izan dira bi hamarkadatan zehar garatu den jarduera guztia bultzatzeko eta gauzatzeko. Bai Batzordea eta bai ETT eratu zirenetik bildu dira, eta hainbat lan-batzorde sortu dituzte. **Horrek erraztu egin du baterako lana emakumeen aurkako indarkeria matxistaren arloko gai espezifikoaren inguruan**. Bi gune horiek bermatu egiten dute halako koordinazio batek eskatzen duen ikuspegi estrategikoa eta praktikoa.

Inplikaturako aldeek beste konpromiso bat ere hartu zuten, alegia, akordioaren edukia inplikaturako profesional guztien artean zabaltzekoa, eta batez ere etxeko indarkeriari lotutako zigor-arloko eskumenak zituzten epaileen artean; izan ere, une hartan oraindik ez zeuden Genero Indarkerian Espezializatutako Epaitegiak, 1/2004 Lege Organikoa indarrean jarri ondoren sortutakoak. Horrekin batera, prestakuntza-planak lantzea eta abiaraztea, eta beharrezko giza baliabideak eta baliabide materialak eta teknikoak gaitzea ere adostu zuten.

I. Akordioak, beraz, **erakundeen arteko lan-sistematika bat ezarri zuen, eta sinatu arte, banakoen borondateen mende egon zen neurri handi batean. Erakundeak konprometitu zituen, eta formaltasun handiagoko esparru bat eman zion erakundeen arteko beharrezko koordinazioari.**

Gainera, arlo sanitarioan, polizialean, judizialean, abokatuen elkargoetan, gizarte-zerbitzuetan eta hezkuntza-eremuan jarduteko jarraibideak garatu ziren akordioan. Jarraibide horiei lau eranskin gehitu zitzaizkien, txostenak egiteko eta informazioa biltzeko ereduak ematen zituztenak. Ildo horretan, aitortu beharra dago jarraibide horiek **hurrengo akordioen oinarriak ezarri zituztela, eta erreferentzia saihestezinak eta inspirazio-iturri izan zirela 2001etik aurrera EAEko lurralde osoan hedatu ziren toki-eremuko protokolo guztietarako** bereziki LIV indarrean sartu zenetik aurrera.

Garrantzizkoa da azpimarratzea **garai hartan ez zegoela gaur egun gai horretan erreferentziazkoak diren lege-euskarrietako bat bera ere**. Ahalmen eta balio handiko lege-tresnak etortzeke zeuden, besteak beste, honako hauek: "27/2003 Legea, uztailaren 31koa, etxeko indarkeriaren biktimak babesteko agindua arautzen duena"; "1/2004 Lege Organikoa, genero-indarkeriaren biktimei babes osoa emateko estatu-mailako neurriei buruzkoa"; "4/2005 Legea, EAEko emakumeen eta gizonen berdintasunerako"; "3/2007 Lege Organikoa, martxoaren 22koa, emakumeen eta gizonen arteko berdintasun eraginkorrerako" Estatuaren eremuan, edo "Europako Kontseiluaren Hitzarmena, emakumeen aurkako indarkeriaren eta etxeko indarkeriaren prebentzioari eta borrokari buruzkoa", 2011koa. Hala eta guztiz ere, **I. Akordioak jada aurreratu zuen erantzunean ikuspegi integral bat hartzeko premia**, lehen inoiz egin ez zen bezala, eremu askotako erakundeek elkarrekin lan egiteko konpromisoak bilduta, indarkeriari aurre egin behar dioten emakumeei modu koordinatu batean laguntzeko.

Azken batean, horrek esan nahi du I. Akordioa apustu instituzional aitzindari bat dela biktimei ematen zaien erantzunari osotasun handiagoa emateko, **emakumeen aurkako indarkeriari erantzuteko erakunde desberdinen erantzunkidetasuna eskatuta**. Horrek esan nahi du Akordioari esker urrats garrantzitsuak eman zirela ahaleginak bateratzearen eta jarduerak lerrokatzearen alde, **kalitate handiagoko erantzunak, biktimen premietan arreta handiagoa jartzen dutenak** eskaini ahal izateko.

1.3. Bere indarraldian egindako lana

I. Akordioa zortzi urtetan zehar ezarri zen, 2001 eta 2009 artean. Lehenengo urteak lan handikoak izan ziren, ia dena egiteko zegoen eremua zelako eta baita testuinguru soziala, politikoa eta legegilea bereziki asaldatua zegoelako. Esan bezala, I. Akordioaren indarraldian, besteak beste, honako lege hauek onartu ziren: "27/2003 Legea, uztailaren 31koa, etxeko indarkeriaren biktimak babesteko agindua arautzen duena"; "Genero-indarkeriaren Legea"; LIV Legea, edo "3/2007 Lege Organikoa, martxoaren 22koa, emakumeen eta gizonen berdintasun eragingarrirako", Estatuaren eremuan.

I. Akordioaren esparruan, **beste hainbat lan eta txosten egin ziren, erakundeen arteko koordinaziorako oinarriak eraikitzen lagundu zutenak**, baita hainbat eremutatik abian jartzen ziren jardueri koherentzia ematen ere. Nabarmentzekoak dira lan hauek:

- 2002an, sinatu eta urtebetera, Jarraipen Batzordeak "**Tratu txarren biktima diren emakumeentzako segurtasun-plana (2002-2004)**" onartu zuen; guztira 17 neurri jasotzen zituen, 4 interbentzio-eremutan banatuta. biktimen informazioa, poliziaren babesa, babesa prozesu judizialean eta gizarte-babesa. Urte haietan Segurtasun Saila, sailburuordetzaren bidez, aurreneko jarraibideak ematen hasi zen, gerora VD/ VG prozedura izenez ezagutu izan dena.
- 2003ko abuztuaren 2an sartu zen indarrean 27/2003 Legea, uztailaren 31koa, Babes Agindua arautzen duena. Babes-aginduaren eraginkortasuna lankidetzaren eta koordinazio-tresnen garapenaren mende zegoela ulertuta, Jarraipen Batzordeak Legearen aplikazioa protokolizatzeko lanean jardun eta "**Gizarte-zerbitzuen eremuan etxeko indarkeriaren biktimak babesteko aginduaren eraginkortasunerako koordinazio-protokoloa**" argitaratu zuen.
- 2003ko abenduan, Arartekoak txosten bat argitaratu zuen, "EAEko emakumeen aurkako indarkeriari erakundeek emandako erantzuna" izenekoa. Jarraipen Batzordeak txosten horren azterketa bat egin zuen, "**Arartekoaren txostenari buruzko azterketa**" izenarekin argitaratua. Txosten horretatik abiatuta, inplikaturako erakunde bakoitzak konpromisoak hartu zituen EAEko herritarren defentsa-erakundeak egindako gomendioak ezartzeko.
- EAEko erakundeak ahalegin handia egiten ari ziren harrera- eta etxebizitzabaliabideak sortzeko eta eskaintzeko; hala ere, Segurtasun Plan hori ezarri zenetik, hobetu beharreko alderdiak identifikatu ziren. Erakundeen arteko Talde Teknikoaren barruan, Gizarte Zerbitzuen Azpibatzordeak proposamenak landu zituen, eta horren emaitzaz onetsi zen "**Etxeko tratu txarren biktimentzako harrera- eta etxebizitzabaliabideak hobetzeko Programa (2004-2005)**".
- 2005eko azaroaren 25ean, Jarraipen Batzordearen barruan "**Biktimei zerbitzuak emateko espezialitateari eta bateraezintasunari buruzko Akordioak**" sinatu ziren, Akordioaren erakunde sinatzaileek zuzenean edo zeharka kudeatutako zerbitzu publikoetan etxeko indarkeriaren eta/edo sexu-erasoen biktimei zuzeneko laguntza ematen lan egiten duten profesionalen dagokienez espezializazioa bermatzeko eta bateraezintasun-klausulak ezartzeko.

- Egun horretan bertan, Jarraipen Batzordeak **Proposamen terminologikoak**, cdokumentua onartu zuen, Akordioan parte hartzen duten erakundeek emakumeen aurkako indarkeria matxistaren arloan erabili beharreko terminoei buruzko gutxieneko adostasuna lortzeko.
- 2005ean ere, emakumeenganako indarkeriaren aurkako Nazioarteko Egunean, **"Etxeko tratu txarren eta emakumeen aurkako sexu-indarkeriaren aurrean jarduteko gida gizarte-zerbitzuetako profesionalentzat"** onartu zuen Jarraipen Batzordeak. Gidak datuak biltzeko fitxa-eredu bat zuen, eta horren bidez, besteak beste, EAE osorako datu homogeneousak lortzea lortu nahi zen.

I. Akordioa sinatu eta lau urtera, 2005eko otsailean LIV onartu izanak bultzada handi bat adierazi zuen berdintasunaren eta indarkeriaren arloan eta, bereziki, I. Akordioaren esparruan erakunde guztien lana aurrera eramateko. Legeak lau urte lehenago hasitako bidea sendotu zuen, eta, gainera, ekimena blindatu zuen 62. artikulua bidez. Artikulu horretan erakundeen arteko koordinaziorako neurri zehatzak jasotzen ziren.

LIV legearen arabera, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioak erakundeen arteko lankidetzak-akordioak sinatzea bultzatu behar du, EAE osorako jarraibide edo protokolo homogeneousak finkatzeko, jarduera koordinatua eta eraginkorra izan dadin. Gainera, foru- eta toki-administrazioek beren lurralde-eremuan akordioak eta protokoloak sustatu behar dituztela xedatzen du. Horrela, erakundeen arteko koordinaziorako akordioak, protokoloak eta jarraibideak bultzatzeak agintarien sentsibilitatearen eta borondatearen mende egoteari uzten zion, lege-mailako mandatu bihurtzeko.

- Hurrengo urtean, 2006an, Legeak xedatutakoa betetzea errazteko tresnak ematearren, **"GTokiko protokoloak hartzeko Gida"** eta **"Tokiko protokoloak sinatzeko erreferentzia-organoei buruzko Akordioa"** argitaratu ziren. Bi dokumentu horiek funtsezkoak izan ziren toki-mailako erakundeen arteko koordinazioari bultzada berri bat emateko, baita udalerrietan eta mankomunitateetan hainbat sistema eta erakunderen baterako lanari eusten dion gobernantza-eredua errepikatze ere.

2. I. Akordiotik aurrera

2.1. II. Akordioa

Aurreko atalean aipatu den bezala, I. Akordioa indarrean egon zen zortzi urteetan, lege ugari aldarrikatu ziren, indarkeriari aurre egin behar dioten emakumeei eskaini behar zitzaizkien zerbitzu eta baliabideetan funtsezko aldaketak eskatzen zituztenak. Testuinguru horretan, ezinbestekoa zen I. Akordioaren edukiak lege-aldaketetara egokitzea, eta horrek eragin zuen 2009ko otsailean II. Akordioa sinatzea.

Dokumentuak, funtsean, I. Akordiorako aukeratutako egitura mantentzen du. Lehendakariaren eta Emakundeko zuzendariaren aurkezpenaren ondoren, zioen azalpena dator. Bertan nabarmentzen denez, emakumeen aurkako indarkeria giza eskubideen urraketa bat da, estrukturala, eta emakumeen eta gizonen arteko desberdintasunetan errotzen da. Gainera, I. Akordioari dagokionez gaineratzen du, indarkeria *"gizarte-kontrolerako funtsezko tresna bat da ere, desberdintasun hori mantendu dadin eta betikotzeko joera izan dezan"*. Era berean, berriaz aipatzen da funtsezkoa dela *"diziplina anitzeko interbentzio instituzional koordinatu bat antolatzea, bere alderdi sanitarioan, polizialean, judizialean eta sozialean babes eta arreta integrala bermatzeko"*.

Aipatzekoa da II. Akordioak, lehenengoak ez bezala, Printzipio Orokorren atal bat jasotzen duela, erakunde guztiek aurrera eramaten dituzten jarraibideak betetzeko: laguntza integrala eta pertsonalizatua, berdintasuna eta diskriminaziorik eza, prebentzioa, adingabearen interes gorena, ahalduntzea eta normalizazioa, eraginkortasuna eta bizkortasuna, eta biktimizazio minimoa dira eremu guztietan jarduteko jarraibideak bideratzeko adostutako printzipioak.

Aipatutako lege-aldaketen ondorioz, II. Akordioaren esparruan, erakunde sinatzaileek ekintzak areagotu zituzten eta jarduteko prozedurak nabarmen egokitu behar izan zituzten, baita garrantzi handiko tresna berriak sartu ere, besteak beste, Babes Aginduak edo Emakumeenganako Indarkeriaren Epaitegiak.

II. Akordioa sinatu zenetik, bereziki nabarmentzen dira **egindako lanaren aurrerapenak hiru dimentsiotan: ikerketa, prestakuntza eta koordinazioa**.

Ikerketari, dagokionez, 2013tik **aurrerapen progresiboak eta funtsezkoak** egiten ari dira, emakumeen aurkako indarkeria matxistaren eragina hobeto ezagutzeko eta biktimei arreta emateko baliabideen eraginkortasunaren eta irismenaren jarraipena eta ebaluazioa egiteko.

2013ko apirilean, Jarraipen Batzordeak Informazio Sistemen Taldea (aurrerantzean IST) sortzea onartu zuen, eta jarraipena eman zion ISTren barruko azpitaldeari, erakunde guztientzat informazioa biltzeko gutxienezko adierazleak identifikatzen aritu izandakoari.

IST sortu eta bi urtera, Jarraipen Batzordeak ikerketa-arloa hobetzeko jarduketa-sorta bat adostu eta onartu zuen, honako hauek barne: Gutxieneko irismen-adierazleak onartzea; erakunde sinatzaileen mendeko zerbitzuen berri ematea; lana antolatzea bilketa-lan egoki eta kalitatezko bat egiteko; sistema informatikoak gaitzea informazio bereizi hori jaso ahal izateko; eta Emakunderi informazio erantsia ematea aplikazio informatiko baten bidez.

ISTk abiarazitako ekintzen ondorioz, 2015etik datu-base bat dago, emakumeen aurkako indarkeria matxistaren biktimei arreta emateko baliabideak dituzten administrazio-maila guztietako erakunde publikoek (Eusko Jaurlaritza, aldundiak eta udalak eta mankomunitateak) aldizka elikatzen dutena. Tresna horren bidez, arreta ematen zaien pertsonen kopuru eta profilaren berri ematen dute, baita zerbitzuek eta baliabideek eskura dituzten giza baliabideen eta baliabide ekonomikoen berri ere. Informazio horrekin, **urteko txosten bat** egiten da: **"Emakumeen aurkako indarkeriaren biktimei emandako erantzuna"**⁴, Lan hori, zalantzarik gabe, II. Akordiotik eratorritako garrantzi handiko lorpen bat da, gaur egun EAEn indarkeria hori jasaten dutenei ematen zaien erantzunari buruzko ezagutza nabarmen hobetzen lagundu baitu.

Data horretatik aurrera, **txosten bat** ere egiten da urtero, **intzidentziaren eta prebalentziaren azterketa bat jasotzen duena**⁵, bigarren mailako iturrietako datuak bilduta egina. Gainera, txostenak fenomeno horri buruzko beste datu interesgarri batzuk jasotzen ditu, besteak beste, biztanleriak arazo horri buruz duen pertzepzioa, eta abar.

Prestakuntzari dagokionez, II. Akordioaren esparruan, **indarkeria-egoeran dauden emakumeei ematen zaien erantzunean inplikaturako profesionalen prestakuntzari buruzko diagnostiko-prozesua** nabarmentzen da. Diagnostikoaren barruan sartzen dira, batetik, eremu bakoitzean dauden prestakuntza-egituren azterketa, abian jarritako prestakuntza-programen ezaugarriak eta hautemandako prestakuntza-premiak eta -eskaerak; bestetik, iritzi-eskala baten emaitzak, eta, azkenik, indarkeria-egoerei aurre egiten dieten edo aurre egin dieten emakumeekiko interbentzioa eraginkorragoa izateko beharrezkoak diren trebetasunei buruzko hausnarketa.

Diagnostiko horren emaitzak kontuan hartuta, **Jabetuz Programa** diseinatu eta bultzatu zen, **bereizgarrietako bat** Emakundek bultzatzen dituen eremu eta sistema guztietako profesionalen prestakuntza espezializatuan.

⁴ <https://www.emakunde.euskadi.eus/violencia/-/informacion/evaluacion/#INFO>

⁵ Esteka honetan, <https://www.emakunde.euskadi.eus/violencia/-/informacion/evaluacion/#INFO> aurki daiteke argitaratutako azken txostena, "Emakumeen aurkako indarkeriari buruzko datuak. EAE 2019"

Koordinazio-eredua ere **sendotu eta indartu** egin da II. Akordioaren indarraldian. Etengabe egin da lan eremu politikoan eta teknikoan. Jarraipen Batzordea lehentasunak identifikatzen eta zehazten aritu da, eta ETT arduratu da aginduen eta konpromisoen betearazpenaz. Gainera, talde horrek, arlo guztietako teknikariek osatuak, hausnarketak egiten eta kontrastatzen jardun du urte hauetan garatu diren funtsezko prozesuen inguruan. Bi guneek elkarrekiko konfiantzan eta adostasunean oinarritutako lan-eredu bat eraiki dute.

Era berean, egitura horiek eta elkarlanerako ohiturak bermatu dute COVID-19aren pandemiak berekin ekarritako krisi-testuinguru batean erakundeak gai izatea erabaki bateratuak arin hartzeko eta erakundeen erantzuna testuinguru aldakorrera egokitzeko.

2011n, zabaldu egin zen gobernantza-egituraren integrazioa bai Jarraipen Batzordean bai ETTn **Arartekoa sartzean** (hitzarekin baina botorik gabe), erakunde horren ikuspegia emateko helburuarekin, indarkeria matxistaren biktima diren emakumeei zuzendutako jarduera publikoetan sor daitezkeen hutsuneak edo arazoak agerian uzteko eta horri buruzko hobekuntza-proposamenak egiteko.

Gobernantza-eredu horretan, **gaikako lantaldeak** sortzeko aukera jasotzen da. Identifikatutako lehentasun batzuetan zehaztasun handiagoa behar denean eta behar bezala sakondu behar denean, ad hoc lan-guneak eratzen dira. Nabarmentzekoa da, bereziki, ISTk aurrera daraman zeregin estrategikoa, baina, era berean, garrantzi handiko ekarpenak egin dira Harrera Baliabideei buruzko Lantaldetik (HBLT), zeina aurreikusita dagoen Gizarte Zerbitzuetako Lantaldian birformulatzea, edo Berdintasuneko Konferentzia Sektorialean genero-indarkeriaren biktima berriro egiaztatzeke planteatutako Lantaldetik.

Ikerketan, prestakuntzan eta gobernantzan egindako aurrerapenez gain, II. Akordioaren barruan kokatzen diren beste jarduera batzuk ere eraman dira aurrera:

2013an eguneratu egin zen **Etxeko tratu txarren eta sexu-indarkeriaren ondoriozko heriotzen aurrean erantzun instituzional koordinatua emateko prozedura**. Harrezkero, erakundeetan, bereziki tokian tokiko eremuan, herritarrengandik hurbilen dagoen horretan, indarkeria gaitzesteko kultura irmotu da, eta oso finkatuta dago erantzun instituzionala indarkeria matxistak eragindako emakumeen hilketen aurrean, baita euskal gizartearentzat garrantzi berezia duten beste indarkeria-adierazpen batzuen aurrean ere.

Urte horretan bertan, seme-alabak etxeko genero-indarkeriaren biktimatzat hartzen zituen araudia onartu eta indarrean jarri aurretik ere, **"Euskadin genero-indarkeriaren biktima diren haur eta nerabeei emandako arretari buruzko Diagnostiko"** bat egitea adostu zen. Azterlan hori 2014an osatu zen, eta, ondoren, erreferentzia izan zen 2017an ondoko dokumentua egiteko eta onartzeko: **"Euskadin genero-indarkeriaren biktima diren hauren giza eskubideak babesteko ikuspegia eta jarduera-ildoak"**. Dokumentu honetan, genero-indarkeriaren eraginpean dauden haurrak babesteko erronkei eta ekintza-ildoei buruz hartutako erabakiak laburbiltzen dira, hiru ikuspegitatik: giza eskubideak, haurrak eta generoa.

II. Akordioak, atal honen hasieran aipatu dugun bezala, Printzipio Orokorren multzo bat ezarri zuen, erakunde desberdinetatik jarduteko ezartzen diren jarraibideak bideratzeko. Printzipioen artean ezarri zen emakume guztiei bermatu behar zaiela arreta, sexu-orientazioagatiko, arrazagatiko, erlijioagatiko... edo desgaitasun fisiko, psikiko edo

sentsorialagatiko diskriminaziorik egin gabe. Horrekin bat etorrira, 2015ean, hausnarketa-lan bat bultzatu zen eta bi produktu ekarri zituen emaitza gisa: 2017ko argitalpena, "**Indarkeria matxistaren biktima diren eta dibertsitate funtzionala duten emakumeekin esku hartzeko gomendioak**" izenekoa, eta indarkeriari aurre egin behar dioten emakume desgaituei erantzuteko interbentzio-jarraibideen definizioa. Horiek guztiak "**Indarkeria matxistaren biktima diren eta desgaitasuna duten neskak eta emakumeak. Interbentzio-jarraibideak**" izeneko argitalpenean jaso ziren. Bi argitalpenetan burutu zen lan-prozesua EDEKArekin lankidetzan egin zen, eta hark eman zituen esperientzia, ezagutzak eta ezinbesteko begirada espezifikoa eta espezializatua.

Lanen eta prozesuen zerrenda luze horri gehitu behar zaio ETT lehentasunezko kontraste-gunea dela Emakundek egiten dituen bost urteko ebaluazio-prozesuetan. Prozesu horiek Legearen aginduak betetzen direla adierazten dute, arreta ematen duen eremu guztietan, besteak beste, emakumeen aurkako indarkerian. Ildo horretan, Berdintasunerako Legearen erreformaren proposamena kontrastatzeko erreferentziazko gunea ere izan da, gaur egun Legebiltzarrean izapidetzen ari dena.

2.2. III. Akordiorantz

Laster onartzekoa den LIV legearen aldaketaren bidez, xedea da **berdintasunaren aldeko eta indarkeria matxistaren aurkako politika bat eta herrialde-itun bat ahalbidetzea, hura indartuta eta testuinguru sozial eta arauemaile berritik eratorritako premia eta erronka berrietara egokituta**. Testuinguru berri horretan, euskal ordenamendu juridikoa Istanbulgo Hitzarmenera egokitzeko betebeharra nabarmentzen da. Hitzarmen hori 2011n onartu zuen Europako Kontseiluak, eta 2014an sartu zen indarrean Espainiako Estatuan. Zentzu horretan, EAEko Berdintasunerako Lege berria esparru egokia izango da etorkizuneko III. Akordioa sinatzeko eta garatzeko.

Era berean, kontuan hartu behar da 2020-2024 Gobernu Programan exekutiboak konpromisoa hartu zuela *indarkeria matxistaren biktima diren emakumeei arreta hobe emateko erakundeen arteko akordioa eguneratzeko eta biktimei eta haien seme-alabei lehentasunezko arreta integrala, doakoa eta kalitatezkoa bermatzeko, bat etorrira EAEko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Legearen etorkizuneko aldaketekin*.

Azken urte hauetan, II. Akordioaren barruko prozeduren eta koordinazioen garapenarekin batera, EAEn hainbat eratako hausnarketa-, azterketa- eta ebaluazio-guneak sortu dira (horietako asko dokumentu honetan bertan aipatu dira) emakumeen aurkako indarkeria matxistaren biktimei arreta ematen dieten baliabide eta erakundeen erantzunaren kalitateari buruz, arretan eta koordinazioan hobekuntzak eta erronkak identifikatzearen. Adibide gisa aipatuko dugu Emakundek egindako "*Emakumeen aurkako etxeko tratu txarren arloko baliabide judizialen eta laguntza letraduaren ebaluazioa*". Jarraipen Batzordeari eman zitzaion ebaluazio horren berri eta oso erabilgarria izan da ETTren lanetan. Sortu den ezagutza horrek guztiak lagunduko du Erakundeen arteko Akordioaren eguneratzea oinarri sendo eta ondo dokumentatuen gainean egiten.

II. Akordio instituzionalean inplikaturako eragileekin egindako hausnarketa sakonagatik, garrantzizkoa da aipatzea *"Hausnarketa kolektiboko prozesua EAEn indarkeria jasaten duten emakumeei eta neskei arreta emateko sistema hobetzeko"*. Prozesu hori Emakundeek garatu du NBEren⁶ *"Indarkeriaren pean dauden emakumeentzako eta neskeentzako oinarrizko zerbitzuei buruzko Baterako Programa Globala"*-ren berrikuspen baten esparruan. Indarkeriaren biktima diren emakumeei ematen zaien arretaren gutxieneko kalitate-estandarrek testatzeaz gain, EAeko errealitateari buruzko hausnarketa kolektiboan parte hartzen duten hainbat eragile inplikatuz ziren, estandar horiei dagokienez. Hori guztia, arreta-sistema osoa bat etor dadin oinarrizko interbentzio-printzipio eta -prozedura batzuen inguruan eta EAEn emakumeen aurkako indarkeria jasaten dutenentzako arreta-sistema etengabe aldatzera eta hobetzera bideratutako ikaskuntza baten inguruan⁷.

Aipaturako aurrerapen horiek guztiek Erakundeen arteko III. Akordioa elikatu eta berau diseinatzeko gida gisa balio izango dute.

⁶ 2014az geroztik NBErekin lankidetzan ari da Emakunde, indarkeriaren biktima diren emakumeei zuzendutako laguntzan gutxieneko kalitate-estandar batzuk diseinatzeko, *"Indarkeriaren pean dauden Emakumeentzako eta Neskeentzako Oinarrizko Zerbitzuei buruzko Programa Bateratu Globala"*-ren esparruan. Programak helburutzat du maila internazionalen, nazionalen edo eskualdekoan munduko leku desberdinetan garaturako araudia zehazten laguntzea, kontuan hartuta ez dela ezartzen edo aplikatzen ari hainbat arrazoiengatik (araudiaren zehaztasun gabezia, irizpide praktikoen gabezia eta abar).

⁷ Prozesu horretan 150 pertsonak baino gehiagok parte hartu zuten, arretaren arloan inplikaturako erakunde publikoetakoek, erantzukizun publikoko zerbitzuak ematen dituzten erakunde pribatukoek, gizarte zibileko erakundeetakoek eta beste eragile batzuek, 6 jarduera-eremuri lotutakoek (osasuna, justizia, polizia, gizarte-zerbitzuak, koordinazioa eta gobernantza).

3. Ekarpen nabarmenak

I. Akordioak bidea ireki zuen, eta erakundeen arteko koordinazioaren oinarriak ezarri zituen. Horietako asko indarrean daude oraindik, eta ezinbesteko erreferentzia izaten jarraitzen dute indarkeriari aurre egiten dioten emakumeen arretan inplikaturik dauden erakunde guztientzat.

Bai I. Akordioa bai II. Akordioa aurrerapauso eztabaida ezina izan dira euskal erakundeek emakumeen aurkako indarkeria matxistaren aurrean duten erantzuna hobetzeko, eta erakundeen arteko lankidetzaz biziagoa eta egonkorragoa izateko oinarriak ezarri dituzte, indarkeriak adierazten duen arazo estruktural eta dimentsio anitzekoaren ezaugarriekin bat etorrira, hain zuzen ere.

Laburpen gisa, jarraian, I. eta II. Akordioen 10 lorpen nagusien zerrenda bat eskaintzen da:

1. I. Akordioa **ekimen aitzindaria** izan zen bai EAEn bai kanpoan ere, eta emakumeen aurkako indarkeria matxistaren arazoari emandako **erantzunaren ikuspegi integral** bat aurreratu zuen, hainbat erakunderen **erantzunkidetasuna** eskatzen zuena, biktimen premietan gehiago oinarritutako eta kalitate handiagoko erantzunak eman ahal izateko.
2. Balio erantsi bat du, etxeko tratu txarren eta sexu-erasoen biktimei laguntzeko Autonomia Erkidego honetan **inplikaturik dauden erakunde guztiak** konprometitzen dituelako. Denek adostu zuten **beren prozedurak edo jarduerak egokitzea** EAE osorako akordioan jasotako jarraibide homogeneo batzuetara.
3. Emakumeen aurkako indarkeria matxistaren biktimentzako arreta eta babesa **garrantzi handiko leku batean** kokatzen lagundu zuen. Mezu hau indartu zen: emakumeen aurkako indarkeria eskubideen urraketa bat da, eta botere publikoek ahaleginak batuz esku hartu behar dute eta esku hartuko dute horretan.
4. Indarkeriaren **ondorio** indibidualak, baina baita sozialak ere, ikusarazi zituen. Gainera, **diskriminazioaren, desberdintasunaren eta emakumeen aurkako indarkeriaren** artean dagoen lotura zuzena nabarmendu zuen, gaur egun ditugun erreferentziazko lege-euskarrietako bat bera ere argitaratu ez zen une batean, besteak beste, "Europako Kontseiluaren Hitzarmena, emakumeen aurkako indarkeria eta etxeko indarkeria prebenitu eta borrokatzeari buruzkoa", 2011koa.
5. I. Akordioaren esparruan **Jarraipen Batzorde** bat sortu zen, erakunde sinatzaileetako agintari gorenaren elkargune bat alegia, etengabeko koordinazioa eta emandako urratsen eta adostasunez hartutako erabakien ebaluazioa bermatzeko. **Erakundeen arteko Talde Tekniko bat (ETT)** ere sortu zen, emakumeen aurkako indarkeria matxistaren arloko gai espezifikoaren inguruan **baterako lana** erraztu duena. Egitura horiek bermatu egin dute erakundeen arteko **lan-sistematika** bat ezartzea, kontuan hartuta sinatu zen arte banakako borondateen mende zegoela, neurri handi batean. Horrez gain, **erabaki bateratuak bizkor hartu** ahal izatea ere erraztu du.

6. I. Akordioan jasotako jarraibideek hurrengo akordioen **oinarriak** ezarri zituzten, eta erreferentzia saihestezinak eta inspirazio-iturri ere izan ziren EAEko lurralde osoan hedatu ziren **toki-eremuko protokolo** guztietarako.
7. II. Akordioa indarrean jarri zenetik, **erakundeen arteko koordinazio-eredua zabaldu, indartu eta sendotu egin da**. Jarraipen Batzordeak eta ETTk areagotu egin dute beren lana, baita konfiantza irabazi ere, eta funtsezko gaikako lantaldeak sortu dira, besteak beste, Informazio Sistemen Taldea (IST).
8. Bereziki nabarmentzen dira **ikerketarekin lotutako aurrerapenak**, berekin ekarri dutenak datuen bilketaren eta hedapenaren hobekuntza, emakumeen aurkako indarkeria matxistaren eragina ezagutzeko eta biktimei arreta emateko baliabideen **eraginkortasunaren eta irismenaren jarraipena** eta ebaluazioa egiteko. Nabarmentzekoa da ere prestakuntza bultzatu dela **Jabetuz Programa** abian jarri zenetik. Programa hori da, hain zuzen, Emakundek bultzatutako eremu eta sistema guztietako profesionalen prestakuntza espezializatuaren bereizgarrietako bat.
9. II. Akordioak ekarri zituen, besteak beste, **emakumeko emakumeenn kontrako indarkeriaren eta sexu-indarkeriaren ondoriozko heriotzen aurrean erantzun instituzional koordinatua emateko** prozedura egokitzea; kasuan kasuko araudia onartu aurretik seme-alabak genero-indarkeriaren biktimea zuzenak direla aitortzeari buruzko gogoeta bultzatzea; eta **desgaitasuna duten emakumeei** emandako erantzuna hobetzea, EDEKArekin lankidetzan eta hartutako printzipioekin bat etorrita.
10. Akordioei esker, neurri batean **egituratu** ahal izan da indarkeria-egoeran dauden emakumeei arreta emateko EAEko lurralde osoan hedatzen diren zerbitzuen eta baliabideen sarea. Era berean, erakundeen arteko lana protokolizatzeko eta indartzeko tresnak eskura izateak lagundu egiten du emakumeen **sarbidea** errazten sistema guztietara. Akordioek **prestakuntza** sustatu dute eta, horrekin batera, emakumeen aurkako indarkeria-egoeren detekzio goiztiarra hobetu dute eremu desberdinetatik, baita zerbitzuen arteko **deribazioak** erraztu ere.